



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRISKU SISMIKORAKO LARRIALDI PLAN BEREZIAREN ALDAKETAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Sismikorako Larrialdi Plan Berezia, Gobernu Kontseiluaren 2007ko urriaren 7ko Erabakiaren bidez onartutakoa, aldatu da eta honela geratu da:

Lehenengoa. 1. ataleko (Sarrera) 1.1 puntuan (Helburua eta irismena) azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Bigarrena. 1.2 (Lege eremua) ataleko 1.2.1 puntuan (Estatuko arautegia) azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“PCI/1283/2019 Agindua, abenduaren 27koa, Ministro Kontseiluaren 2019ko abenduaren 20ko Erabakia argitaratzen duena; erabaki horren bidez, babes zibileko plangintzaren oinarritzko jarraibideak eta babes zibileko Estatuko planak aldatzen dira, larrialdiak gertatzen direnean desgaitasuna duten pertsonen eta egoera bereziki ahulean dauden taldeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko xedez”

Hirugarrena. 3. ataleko (Planaren egitura eta antolamendua) 3.1 puntuan (Planaren zuzendaria) Planaren zuzendariaren eginkizun hau aldatu da: “Zuzeneko eraginpeko herritarrei eman beharreko informazioa zehaztea eta koordinatzea; bai larrialdiari buruzko informazio orokorra, bai hartutako neurriak. Nola ezagutarazi eta gizarte-hedabideei eta hainbat administrazioetako erakundeei zein informazio ofizial eman erabakitzea”; eta horrez ordez, beste hau izango da:

“Zuzeneko eraginpeko herritarrei eman beharreko informazioa zehaztea eta koordinatzea; bai larrialdiari buruzko informazio orokorra, bai hartutako neurriak; informazio hori desgaitasuna daukaten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izango dela bermatzeko. Nola ezagutarazi eta gizarte-hedabideei eta hainbat administrazioetako erakundeei zein informazio ofizial eman erabakitzea”.



Laugarrena. 3. ataleko (Planaren egitura eta antolamendua) 3.4 puntuan (Informazio-kabinetea) Informazio-kabineteko eginkizun hau aldatu da: “Tartean dauden biztanleen senideei informazio pertsonala ematea”; eta honela idatzi da:

“Tartean dauden herritarren senideei informazio pertsonala ematea. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.

Horrez gain, Informazio-kabineteko eginkizunetan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela bermatzea”.

Bosgarrena. 3.9 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.9.2 puntuan (Esku hartzeko taldea) Esku hartzeko taldearen eginkizun hau aldatu da: “Beste taldeekin lankidetzan aritzea, biztanleak babesteko neurriak hartzeko”; eta honela idatzi da:

“Beste taldeekin lankidetzan aritzea, herritarrak babesteko neurriak hartzeko garaian, eta desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboetako asistentzia egokia bermatzea”.

Seigarrena. 3.9 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.9.3 puntuan (Segurtasun-taldea)

Segurtasun-taldearen eginkizun hau aldatu da: “Hala eskatzen bazaie, herritarrak ohartarazten laguntzea”; eta honela idatzi da:

“Hala eskatzen bazaie, herritarrak ohartarazten laguntzea eta, aldi berean, informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela ziurtatzea”.

Horrez gain, Segurtasun-taldearen eginkizunetan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Zazpigarrena. 3.9 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.9.5 puntuan (Osasun-taldea), eginkizunen barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:



“Desgaitasuna duten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Zortzigarrena. 3.9 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.9.6 puntuan (Talde logistikoa), eginkizunen barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideen mobilizazioa eta jarduera kudeatzea, eta horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzea, irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta”.

Bederatzigarrena. 4.1 ataleko (Ekintza operatiboak) 4.1.1 puntuan (Biztanleak babesteko neurriak) amaierako paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

“Neurri horiek alderdi espezifikoak kontuan hartuko dituzte, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen asistentzia eta segurtasuna bermatzeko”.

Hamargarrena. 4.1 ataleko (Ekintza operatiboak) 4.1.3 puntuan (Sorospen neurriak) amaierako paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

“Neurri horiek alderdi espezifikoak kontuan hartuko dituzte, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen asistentzia eta segurtasuna bermatzeko”.

Hamaikagarrena. 4.1 ataleko (Ekintza operatiboak) 4.1.4 puntuan (Esku hartzeko neurriak), amaierako paragrafo bat gehitu da biztanleriari laguntzeko eta babesteko neurrien barruan, honela idatzita:

“Neurri horiek alderdi espezifikoak kontuan hartuko dituzte, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen asistentzia eta segurtasuna bermatzeko”.

Hamabigarrena. 6. ataleko (Informatzeko prozedurak) 6.4 puntuan (Larrialdi-egoeran bizilagunak informatzea) amaierako paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzungo dieten informazio- eta jakinarazpen-prozedurak erabili behar dira; asistentzia eraginkorra ematen zaiela”.



bermatzeko, beti ere irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikokoak kontuan hartuta. Abisuak eta informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izan daitezzen, formatu egokiak eta beharrezko mekanismoak erabili behar dira. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.

Hamahirugarrena. 8. ataleko (Planaren ezarpena eta mantentzea) 8.1 puntuan ekintza osagarri hau aldatu da: “Ezarritako ereduaren eraginkortasuna, langileen prestakuntza eta baliabideen eskuragarritasuna egiaztatu, zuzendariak beharrezkotzat jotzen dituen simulazioak eginez” eta honela idatzi da:

“Ezarritako ereduaren eraginkortasuna, langileen prestakuntza eta baliabideen erabilgarritasuna egiaztatu, zuzendariak beharrezkotzat jotzen dituen simulazioak eginez. Horietan, desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia ematen zaiela egiaztatu beharko da”.

Azken paragrafoa ere aldatu da eta honela idatzi da:

“Planeko pertsona arduradunen prestakuntza pertsona horiek Plana ezagutzetik hasten da, bakoitzari dagozkion ekintzetara egokituta plan osoa edo zati bat hedatuz. Larrialdietan esku-hartzeko zerbitzuek berariazko prestakuntza ere jaso beharko dute desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.